



# GURE ONGIZATEA, LEGE

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA

Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua



AGENDA  
2030

# Lagun egiteko animaliarik baduzu? Gida hau irakurtzea interesatuko zaitu

Nafarroak 19/2019 Foru Legea dauka, lagun egiteko animaliak babesteari buruzkoa, 94/2022 Foru Dekretuak onetsitako erregelamenduaren bidez garatua. Estatuak, bestalde, 7/2023 Legea onetsi zuen, animaliak babesteari buruzkoa, joan den irailaz geroztik indarrean, baina oraindik ez da erregelamendu bidez garatu.

Nola eraginen didate bi lege horiek, lagun egiteko animalia baten jabea banaiz edo haiekin jarduerak egiten badituz? **Gida honek zalantzak argituko dizkizu.**

2

## GURE ONGIZATEA, LEGE

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA



# ZERGATIK LAGUN EGITEKO ANIMALIAK BABESTEKO LEGE BAT?

Animaliaren jabeak animaliaren ongizatea eta haren beharren arabera bizi-kalitatea bermatzeko ardura dauka.

Egungo lege-esparruak betebeharrak eta debekuak ezarri ditu animalien jabeentzat edo edukitzaileentzat, abandonuaren eta tratu txarren aurka borrokatzeko, animalien edukitza arduratsua sustatuz.

## ZER JOTZEN DA LAGUN EGITEKO ANIMALIATZAT?

Legez, gure etxean izan ditzakegun edo haiekin jardueraren bat egin dezakegun animalia-espezieak dira:

- Txakur, katu eta hudo guztiak, etxe batean bizi ez badira ere.
- Estatuko legeak etorkizuneko erregelamenduan zehaztuko duen zerrendan sartuta dauden etxeko zein basa animaliak.
- Jabeak lagun egiteko animaliatzat inskribatzen dituen azienda buruak.
- Ehiza-hegaztiak.
- Espezie exotiko inbaditzaileak edo espezie babestuak ez diren akuarioko animaliak.



3

## GURE ONGIZATEA, LEGE

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA



# ZER GERTATUKO DA NIRE MASKOTAREKIN, LAGUN EGITEKO ANIMALIATZAT HARTZEN DEN JAKIN ARTE?

Oraindik ez dago egina lagun egiteko animaliatzat jotzen ahal diren espezieen zerrenda, baina espero dugu laster prest egotea. Ordura arte, zilegi duzu zure maskota edukitzen jarraitzea, eta maskota bat ere eros dezakezu, betiere espezie debekatua ez bada, hala nola animalia pozoitsuak, pertsonendako edo beste animalia batzuentako kaltegarriak izan daitezkeen animaliak, edota espezie babestua edo inbaditzailea delako.

## ZER BETEBEHAR DITUT, LAGUN EGITEKO ANIMALIA BATEN JABE GISA?

- Haren behar fisikoei eta jokabide-beharrei erantzutea:
  - Haien garapen normalerako elikagai osasungarriak eta orekatuak ematea. Ez ditugu elikatuko erraiekin, hilotzekin, ezta osasun kontrolik egin ez zaien animaliangandik datozen barrukiekin ere.
  - Haien espezie eta tamainaren araberako bizitokia ematea, baldintza higieniko-sanitario egokietan.
  - Mugitzeko eta ariketa fisikorako askatasuna ematea.
  - Kontaktu sozial egokia bermatzea, espeziearen eta jardueraren arabera.

4

## GURE ONGIZATEA, LEGE

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA





- Txakurrak, katuak eta hudoak mikrotxip batekin identifikatzea, Nafarroako Lagun Egiteko Animalien Identifikazio Erregistroan inskribatzea, eta Identifikazio Pasaporte izatea. Hori zure albaitariaren bidez eginen duzu.
- Urtero txakurrak, katuak eta hudoak amorraren aurka txertatzea eta aldian-aldian parasitoak kentzea. Zure albaitariak esanen dizu nola.
- Urtean behin albaitaritza-kontrola egitea haien osasuna aztertzeko eta jaso behar dituen txertoak eta tratamenduak kontrolatzeko. Zure albaitariak jarraibide horiek adieraziko dizkizu.
- Animalari behar diren zainketa guztiak ematea haren osasuna eta ongizatea bermatzeko. Zure animaliak gaixotasun edo lesio zantzuak agertzen baditu, albaitariarengana joan behar duzu berehala eta inoiz ez diezu botikarik emanen albaitariak agindu gabe.
- Erregistratutako trebatzaile edo animalia-jokabideen profesional batengana jotzea, zure animaliak jokabide- eta elkarbizitza-arazoak dituenen; bereziki, txakurren kasuan. Animalia nahitaez hezi eta gobernatuko dugu sufrimendua, beldurra edo tratu txarrak eragiten ez dizkioten metodoen bidez.
- Eragotziko dugu gure animaliak pertsoneri, beste animalia batzuei edo natur inguruneari kalteak eragitea. Ez dituzu lotu gabe utzi behar leku publikoetan edo sarbide publikoko leku pribatuetan; bereziki, parke nazionaletan, artaldeak edo animaliak bazkan ari diren abelbideetan edo beste naturgune babestu batzuetan.
- Udal ordenantzak errespetatu behar dira, gure animaliek elkarbizitza ona lor dezaten gizartean. Bestalde, txakurren gorozkiak bildu eta pixak garbitu behar dituzu eremu publikoan, animalia lokarriarekin lotuta eraman, etab.

5

## GURE ONGIZATEA, LEGE

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA



# PRESTAKUNTZA IKASTARORIK EGIN BEHAR DUT TXAKUR BAT EDUKITZEKO?

Nafarroako Foru Legeak ez du prestakuntza ikastarorik eskatzen eta ez du haren derrigortasuna ezartzen. Ikastaro hori estatuko legeak aipatzen du, baina oraindik ez du ezarri nolakoa izanen den.

Horrenbestez, oraingoz ez da nahitaezkoa ikastaroa egitea; estatuko legea garatu arte itxoin beharko da hori zertan datzan zehazteko.

# ASEGURURIK KONTRATATU BEHAR DUT NIRE TXAKURRARENTZAT?

Estatuko legearen arabera, txakurren jabeek erantzukizun zibileko aseguru bat sinatu behar dute. Oraingoz, ez da aseguru egina behar, legearen erregelamendu bidezko garapenak haren gutxieneko zenbatekoa zehaztu arte.

Hala ere, potentzialki arriskutsua den txakur baten jabea bazara, erantzukizun zibileko aseguru bat izan behar duzu hirugarrenei egindako kalteengatik, eta estaldura gutxienez 120.000 €-koa izanen da.



6

## GURE ONGIZATEA, LEGE

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA



## EDUKI DEZAKET NIRE TXAKURRA EDO KATUA TERRAZA EDO PATIO BATEAN?

Leku horietan eduki ditzakezu, baina animalariari egonaldi egokia izatea ahalbidetzen badiote ongizateari eta osasunari dagokienez; dena den, **INOIZ EZ MODU IRAUNKORREAN.**

## NIRE TXAKURRA LOTUTA EDUKI DEZAKET LEKU BATEAN?

Lotuta eduki dezakezu, baina **INOIZ EZ MODU IRAUNKORREAN.** Ezin dira egon normalean lotuta. Soilik denbora labur batez eta arrazoi justifikatua dagoenean, inoiz ez modu iraunkorren.

Orduan, zilegi da nire txakurra leku batean lotuta uztea, erosketak edo mandatuak egiten ditudan bitartean? Bai, zilegi da, baina baldin eta animalia leku seguruan badago, ahalik eta denborarik laburrenean eta ziurtatzen baduzu ez duela inolako arriskurik toki horretan.



7

## GURE ONGIZATEA, LEGE

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA






## NORENGANA JO BEHAR DUT NIRE TXAKURRA HEZTEKO EDO TREBATZEKO?

Txakur-trebatzaileen Nafarroako Erregistroan erregistratua dagoen trebatzaile baten edo animalia-jokabidearen profesional baten zerbitzuak kontratatu behar dituzu. Horrek ziurtatzen dizu profesional erregistratua ofizialki aitortua dagoela hezle edo trebatzaile jarduera egiteko.

## LAGUN EGITEKO NIRE ANIMALIA ESTERILIZATU BEHAR DUT?

Saihestu behar duzu zure animalia ugaltzea zuk jakin gabe. Zure txakurra edo zure katua kalera bere kasa zure kontrolik gabe ateratzen bada, esterilizatu beharko duzu nahi gabeko umaldiak saihesteko.

Nafarroan ez da nahitaezkoa katuak 6 hilabete bete aurretik esterilizatzea, estatuko legean ezarritakoaren aldean, baina kontuan hartu zure maskotaren ugaltze kontrolgabea eragotzi behar duzula.



8

## GURE ONGIZATEA, LEGE

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA





## EDOZEIN LEPOKO MOTA ERABIL DEZAKET NIRE TXAKURRAREKIN?

Ez, harentzat kaltegarriak ez diren lepokoak bakarrik erabil ditzakezu. Debekatua duzu urkatze-lepokoak, ziridunak eta lepoko elektriko batzuk erabiltzea. Animalari kalterik eragin diezaioketen lepoko elektrikoak soilik erabil daitezke, albaitari profesional batek edo trebatzaile batek hala zehazten duenean, betiere huraxe *aldi baterako* erabili behar bada animalia trebatzeko.

## MOZTU DITZAKET NIRE TXAKURRAREN BELARRIAK EDO BUZTANA?

Ez. Debekatuak daude lagun egiteko konpainia baten itxura aldatzeko kirurgiak, hala nola buztana moztea, belarriak moztea, ahots-kordak ebakitzea eta azkazalak edo hortzak erauztea.

Albaitari profesional batek halakoak beharrezkotzat jotzen baditu albaitaritza-medikuntzako arrazoiengatik, egin daitezke, baina beti albaitari profesionalaren ziurtagiri bidez justifikatua.



9

## GURE ONGIZATEA, LEGE

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA




## HAZI DITZAKET ANIMALIAK, HAZLE BAIMENDUNA BANAIZ?

Nafarroan, merkataritza xederako hazteko, hazkuntza-zentro gisa egon behar duzu erregistratua. Horrek hazten dituzun kumeak saltzea ahalbidetzen dizu.

Jarduera horretan aritzeko asmorik ez baduzu, kumaldiren bat izan dezakezu etxean, baina legeak ezarritako murrizketak errespetatuta; horien artean, kumeak saltzeko debekua. Estatuko legeak, gainera, kasu horretarako arautuko du nola erregistratu behar den animalia-jabea hazle puntual gisa eta, animalia, ugaltzaile gisa, Lagun Egiteko Animalien Erregistroan. Oraingoz, hori ez da Nafarroan aplikatzen.

## ZER ANIMALIA EROS DITZAKET DENDAN?

Oraingoz eta orain arte, lagun egiteko edozein animalia, salbu animalia debekatua bada. Baina kontuan hartu txakurrak, katuak eta hudoak, 2024ko irailaren 29tik aurrera, jaio ziren hazkuntza-zentroan bakarrik erosten ahalko dituzula, data horretatik aitzina haien salmenta debekatua egonen delako animalia-dendetan.



10

## GURE ONGIZATEA, LEGE

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA



# EROS DEZAKET INTERNET BIDEZ LAGUN EGITEKO ANIMALIARIK?

Ez, debekatua dago, legeak legez kontrako salerosketa eragotzi nahi duelako eta animalien ongizatea eta segurtasuna bermatu nahi dituelako. Animaliak hazkuntza-zentro erregistratuetan edo denda baimendunetan soilik eros ditzakezu, kontuan harturik aurreko puntuan adierazitakoa txakurren, katuen eta hudoen salmentarako.

## NON ADOPTATU DEZAKET ANIMALIA BAT?

Babes publikoko zentro batean adoptatu dezakezu edo erregistratuta dagoen babes elkarte baten bidez. Halaber, animaliak saltzeko denda batean adoptatu dezakezu, baldin eta babes elkarte batekin lankidetzaz hitzarmena badu, baina hartu kontuan, dendak ezin dizula deus kobratu zerbitzu horren truke. Babes elkarrekin albaitaritza-gastuak kobratzen ahal dizkizu, hala nola identifikazioa, txertaketa, parasitoak kentzea, esterilizazioa eta jasotzen diren beste tratamendu batzuk.

Adopzio-kontratua sinatu beharko duzu eta adoptatzen duzun animalia dokumentazio eta informazio guztia emanen dizute, eta haren zainketei, tratamenduei eta txertoei buruzko albaitaritza-ziurtagiri bat. Animalia esterilizatua emanen dizute, salbu albaitaritza-arrazoiengatik esterilizazioa egitea komeni ez bada.

Hobe da animalia adoptatzea erosi baino lehen; horrela, etxea emanen diozulako horren beharrean dagoen animalia bati.



11

## GURE ONGIZATEA, LEGE

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA



## ZENBAT DENBORAZ UTZ DEZAKET NI ANIMALIA BAKARRIK ETXEAN?

Zure animaliak beti eduki behar dituzu gainbegiraturik eta arreta emanik edota beste pertsona batek arduratu behar du horretaz. Etxetik kanpora bazoaz, ezin duzu zure maskota gainbegiratzerik gabe utzi 3 egun jarraian baino gehiagoan. Txakurren kasuan, epe hori ez daiteke izan 24 ordutik gorakoa jarraian.

## ANIMALIAK ONARTZERA BEHARTUAK DAUDE JATETXEAK, HOTELAK ETA BESTE OSTALARITZA-ESTABLEZIMENDU BATZUK?

Lagun egiteko animalien sarrera horrelako establezimenduetan tokian tokiko udal ordenantzak araututakoaren mende dago. Ez daude behartuak animaliak onartzera eta, haien sarrera onartzen ez badute, establezimenduaren kanpoaldetik ikusgai dagoen ezaugarri baten bidez adierazi behar dute.

Kontuan hartu animaliak inola ere ezin izanen direla sartu elikagaiak egin eta erakusgai dauden tokietara.



12

### GURE ONGIZATEA, LEGE

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA





## **SAR NAITEKE NIRE ANIMALIAREKIN ERAIKIN ETA EGOITZA PUBLIKOETAN?**

Bai, berariaz debekatua ez badago eta eraikineko sarreran agerian adierazten bada.

## **BIDAIATU DEZAKET NIRE ANIMALIAREKIN GARRAIO PUBLIKOETAN?**

Bai, baldin eta pertsonendako, beste animalia batzuekiko eta gauzendako arriskutsuak ez badira, udal ordenantzek ezarritakoari kalte egin gabe. Legeak ezarri du lagun egiteko animalien sarrera ahalbidetu dadila garraio bide guztietan.

13

## **GURE ONGIZATEA, LEGE**

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA



# ZILEGI DA LAGUN EGITEKO ANIMALIEN HILKETA EDO EUTANASIA?

Legeriak debekatua du lagun egiteko animalia hiltzea, baina zenbait kasutan zilegi dira eutanasia eta hilketa.

Eutanasia zilegi da, baldin eta albaitari batek egiten badu, bere irizpidearekin bat, animaliarri alferreko sufrimendua eragozteko, bizi-kalitate onargarria ahalbidetzen ez dion gaixotasun edo lesio bat badu.

Zilegi da hilketa pertsonen edo animalien segurtasun-egoeretan, osasun publikoagatik, larrialdi-egoerengatik, justifikatua badago eta agintari eskudunak baimendua badago. Kasu horietatik kanpo, ez da zilegi lagun egiteko animalien heriotza eragitea.

# ZER EGIN BEHAR DUT NIRE ANIMALIA GALTZEN BADA?

Haren galera salatu edo jakinarazi behar diot agintari eskudunari (polizia, guardia zibila, Nafarroako Gobernua, udala), 48 ordu igaro baino lehen haren galeraren berri izan dudanetik.



14

## GURE ONGIZATEA, LEGE

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA



## ZER EGIN BEHAR DUT NIRE MASKOTA HILTZEN BADA?

Gorpua enpresa baimendun bati eman behar diozu erraustu. Enpresak jarduera hori frogatzen duen egiaztagiri bat eman beharko dio. Gero, albaitariarengana jo beharko duzu, zure maskotaren baja tramita dezan lagun egiteko animalien identifikazio Erregistroan. Horretarako, arestian aipatutako enpresaren egiaztagiria aurkeztu behar diozu.

Heriotza albaitaritza-zentro batean gertatzen bada, zentroko profesionalak egingen du kudeaketa enpresa baimendunarekin.

## INOLAKO BETEBEHARRIK BADUT KATU-KOLONIEKIKO?

Legeak udalak behartzen ditu haien udalerrietan aske bizi diren katuak kontrolatzera, katu-kolonia direlakoak kudeatuz. Kudeaketa horren helburua da aske bizi diren katu guztien populazioa kontrolatzea, populazioa pixkanaka murrizteko, baina lagun egiteko animalia gisa babestuta. Katuak erroldatu, identifikatu eta esterilizatzen dira, eta haien osasuna eta elikadura kontrolatzen dira, haien bizi-baldintzak eta ingurunearekiko elkarbizitza hobetzeko.

Katu-kolonietan bizi diren katuak lagun egiteko animaliatzat jotzen dira; beraz, beste edozein animalia bezala daude legeak babesturik. Horrenbestez, kolonia osatzen duten katuen osotasuna, segurtasuna eta bizi-kalitatea errespetatu behar dituzu.



15

## GURE ONGIZATEA, LEGE

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA






# EHIZA-TXAKURRAK ETA ARTZAIN-TXAKURRAK LEGEAN SARTURIK DAUDE?

Bai, ehiza-txakurrak eta artzain-txakurrak 19/2019 Foru Legean sarturik daude. Hala ere, berezitasunak ezarri dira animalia horiendako, beren ehiza edo zaintza funtzioetan ari direnean.

## ORDUAN, EHIZAN EDO ARTZAIN-TXAKURRAK ARITZEN DIREN PERTSONEK PRESTAKUNTZA IKASTARORIK EGIN BEHAR DUTE EDO ASEGURU BAT KONTRATATU BEREN TXAKURRENTZAT?

Ez. Ehizan edo artzaintzan aritzen diren pertsonak, bai eta kirol jardueretarako edo jarduera profesionaletarako animaliak dituztenek ere, ez dute prestakuntza ikastarorik egin beharrik, ezta aseguru bat kontratatu beharrik ere.

Hala ere, gogoratu: potentzialki arriskutsua den txakur bat erabiltzen baduzu jarduera horietako batean, erantzukizun zibileko aseguru bat izan behar duzu hirugarrenei egindako kalteengatik, eta estaldura gutxienez 120.000 €-koa izanen da.



16

## GURE ONGIZATEA, LEGE

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA



## ZER ZIGOR AURREIKUSTEN DITU LEGE-ESPARRUAK?

Animaliak babesteari buruzko foru edo estatuko legearen betebeharrak edo debekuak ez betetzearen ondorioz, zehapenak jarriko dira, bai ohartarazpenak, bai 200 eurotik 200.000 €-ra bitarteko isunak, ez-betetzearen balorazioaren arabera, hau da, arina, larria eta oso larria.

Arau-haustea delitutzat jotzen bada, auzia bide penalera joanen da; adibidez, animalia bati tratu txarrak eragitea edo hura abandonatzea edo hiltzea.



17

## GURE ONGIZATEA, LEGE

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK  
BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA





# GURE ONGIZATEA, LEGE